

Henri Matisse eta Pablo Picasso: bizitza irudietan

Artearen Historia, Batxilergoko 2. maila

Maite González Mateo

R400 ikastaroa

Artazugoikoa (IRALE), 2009-2010 ikasturtea, 2.txanda

IRAKASMAILA / LANBIDE ARLOA	Batxilergoa
ESPEZIALITATEA / HEZIKETA ZIKLOA	Giza eta Gizarte Zientzietako Batxilergoa
GAIA / MODULUA	Artearen Historia
IZENBURUA	<i>Henri Matisse eta Pablo Picasso: bizitza irudietan</i>
EGILEA	Maite Gonzalez Mateo
IRAKASTEGIA	Artatzu-Goiko (Bilbo)
OHARRAK	Bi artista horien biografiak eta zenbait lanen iruzkinak. Word dokumentua.

Aurkibidea

Sarrera

Henri Matisse

Biografia

- Pintura-kaxa
- Ikastaldia
- Dibisionismoa
- Familia
- Erakusketak
- Collioure
- “Donatello basapiztien artean”
- Stein familia
- Bidaiak
- Magreb eta Italia
- Nazioarteko artista
- Andaluzia eta Magreb
- Lehen Mundu Gerra
- *Praka gorridun odaliska*, tailerretik museora
- Tahiti
- 52 metro karratuko horma-irudia
- Dama-jokoa
- Sinplifikazioaren bidean
- *Gorria eta Beltza*
- Bigarren Mundu Gerra
- Gaixoaldia
- Ebakitako paperak
- Ilustratutako liburuak
- Vence-ko Errosarioko Amaren Kapera
- Biluzi urdinak
- *Rosace* (arrosa-leihoak)

Henri Matisseren zenbait lanen iruzkinak

- *Leiho irekia Colliouren*, 1905
- *André Derainen erretratua*, 1905
- *Kapeladun emakumea*, 1905
- *Bizipoza*, 1905-06
- *Marra berdea*, 1906
- *Margueriteren erretratua*, 1906-1907
- *Dantza (1909) eta Musika (1910)*
- *Ate-leiho Colliouren*, 1914
- Jazz liburuko *Pailazoa (1943) eta Laguna (1944)*
- Venceko kaperako beirateak

Pablo Picasso

Biografia

- Malaga eta A Coruña
- Bartzelona
- Els Quatre Gats
- Paris
- Casagemasen heriotza
- Bateau Lavoir
- Fernande
- Arlekinak eta txerpolarriak
- La Closerie des Lilas
- 1905eko Udazkeneko Aretoa
- Herbehereak
- Gertrude eta Leo Stein
- Arte iberiarra
- Gertrude Steinen erretratua
- Gósol
- Gauguin eta Cézanne

- *Les Demoiselles d'Avignon*
- Maskara afrikarrak
- George Braque
- La Roche-Guyon eta Horta del Ebro
- Erretratu kubistak
- Cadaques
- Erakusketak
- Ceret
- Alzairuzko orrazia
- Kautxua eta soka
- *Papier collé* (itsatsitako papera)
- *J'aime Eva*
- Kartoizko gitarrak eta egurrezko mandolinak
- *Pintorea eta haren modeloa*
- Kubismoa eta klasizismoa
- *Parade*
- Olga Kokhlova
- Picassoren klasizismoa
- Surrealismoa
- Marie-Therese Walter
- *Suite Vollard*
- Dora Maar eta *Gernika*
- Royan
- Françoise Gillot
- Pintura eta politika
- Jacqueline
- "La Californie"
- Sexualitatea, pintura eta zahartasuna
- Sexualitatea
- Pintura
- Zahartasuna

Pablo Picassoren zenbait lanen iruzkinak

- *Lehenengo jaunartzea* (1896)
- *Emakume eskale uzkurtua* (1902)
- *Bi ahizpak* (1902)
- *Harena* (1906)
- *Gertrude Steinen erretratua* (1906)
- *Daniel-Henri Kahnweillerren erretratua* (1910)
- *Natura hila saredun aulkiarekin* (1912)
- *Ma Jolie* (1914)
- *Olga Kokhova* (1917)
- *Neska gaztea ispiluaren aurrean* (1932)
- *Emakume-bustoa kapelarekin* (1939)
- *Claude marrazten, Françoise eta Paloma* (1954)
- *Jacqueline* (1957eko abenduak 3)
- *Autoerretratua* (1972ko ekainak 30)

Bibliografia

Sarrera

Lan hau idatzi dut Batxilergoko 2. mailako Artearen Historiako ikasleentzat. Askotan, ikasle horiek artistei edota artelanei buruzko informazioa euskaraz jasotzeko ohiturarik ez dute izaten, nahiz eta artista zein artelana erabat ezagunak izan. Hori dela eta, testu honen helburua da ikasleei informazio hori erraztea.

Matisseren eta Picassoren biografiak eta zenbait lanen iruzkinak biltzen ditu lan honek. Pintura-lanak, marrazkiak eta lan grafikoak bakarrik aztertu ditut, eskultura-lanak eta zeramikazkoak alde batera utzita.

Biografiak osatzeko, kontuan izan ditut artista bakoitzaren lanetan eragina izan duten gertakizunak, pertsonak eta tokiak. Lanak aukeratzekoan, lehentasuna eman diet gertakizun, pertsona eta toki horiek agertzen dituzten irudiei.

Testu honek ez du zentzurik, ikasleek aipatzen ditudan lanak ikusterik ez badute. Hortaz, artista bien lanak erakutsiko ditut esteken bidez.

Henri Matisse

Biografia

Pintura-kaxa

[Henri Matisse](#) familia burges batean jaio zen Cateau-Cambrési-n (Frantziako iparraldea), 1869an. Gaztetan, zuzenbide-ikasketak egin zituen Parisen. Ondoren, herrira itzuli, eta abokatu-laguntzaile lanean hasi zen. Marraztea gustuko zuenez, marrazketa-eskola batera joaten zen goizetan, bulegora joan aurretik. 1890ean, hogeita bat urte zituela, luze egon behar izan zuen ohean, hesteetako gaixotasun batek jota. Amak pintura-kaxa bat erregalatu zion entretenitzeko. Matisse, koloreak erabiltzen hasi zenean, pintura maitatzen hasi zen. 1891n, bulegoa utzi, eta Parisera joan zen artea ikastera.

Ikastaldia

Parisen, Gustave Moreau pintore sinbolistaren ikasle izan zen Henri Matisse. Moreauren aholkuei jarraituz, artistak hiriko museoak bisitatu, eta gustuko zituen maisulanak kopiatu zituen.

Klasikoen lanetatik aparte, Henri Matissek XIX. mendearen amaierako artea ere ezagutu eta maitatu zuen. Interes horren erakusgarri dira 1899an Ambroise Vollard arte-merkatariari erositako lan hauek: Vincent van Gogh-en marrazki bat, Rodin-en *Henri de Rochefort* eskaiolazko bustoa, Paul Gauguin-en *Gizon gaztea tiarelarekin* koadroa eta Cézanne-ren *Bainulariak*. Vincent van Goghek, Cezannek eta Gauguinek eragin nabaria izan zuten Matisseren pintura-lanetan.

Dibisionismoa

1904an, Matissek Paul Signac pintorea bisitatu zuen Saint Tropez-en (Frantziako Mediterraneoko kostaldea). Signacek bultzatutako dibisionismo-teknika erabilita, Matissek [Luxua, isiltasuna eta gurtasuna](#) (*Luxe, calme eta volupté*, 1904-1905) koadroa margotu zuen.

Familia

1894an, Henri Matissek eta Caroline Joblau modeloak alaba bat izan zuten: [Marguerite](#).

1898an, Matisse Amélie Pareyre-rekin ezkondu zen. Henrik eta Améliek bi seme izan zituzten: Jean eta Pierre. Aitarekin eta Amélierekin bizi izan zen Marguerite.

Matisse familiak urte latzak bizi izan zituen, artistak ez zuelako koadrorik saltzen. Bizimodua ateratzeko, senar-emazte biek gogor lan egin behar izan zuten. Améliek jantziak eta kapelak egin eta saldu egiten zituen. Henrik pintore-dekoradore lan egin zuen. Hala eta guztiz ere, ez zuten behar beste diru lortzen, eta artistak pintore izateari uztea pentsatu zuen.

Erakusketak

Diru-arazoak gorabehera, Henri Matissek ez zuen amore eman, eta bere lana publikoari erakusteko bidea egin zuen.

1902an, hainbat pintoreren erakusketa batean hartu zuen parte Berthe Weill-en aretoan. Hurrengo urtean, Matissek Udazkeneko Aretoan erakutsi zituen zenbait lan. 1904an, Vollard arte-merkatariak artistaren lehenengo banakako erakusketa antolatu zuen. 1905eko Independenteen Aretoan, Matissek *Luxua, isiltasuna eta guritasuna* erakutsi zuen: Paul Signac pintoreak erosi zuen koadroa.

Collioure

1905ean, Matissek uda Collioure-n (Mediterraneoko kostaldeko herria) eman zuen André Derain-ekin. Herri horretan, Paul Gauguinen adiskide bat bizi zen. Matissek haren etxean ikusi zituen Gauguinek Tahitin egindako lanak. Koadro horietan, Gauguinek oso modu pertsonalean islatu zuen Tahitiko gizartea, kolore lauen teknika erabilita.

Matissek eta Dérainek Colliouren hainbat paisaia margotu zituzten, eta erretratua ere egin zioten elkarri. Koadro horietan, aparteko saiakuntzak egin zituzten: kolore puruak erabili zituzten, horiek adierazkorragoak baitira.

Henri Matissek kolore puruak eta lauak baliatu zituen [André Derainen erretratua](#) (*Portrait d'André Derain, 1905*) eta [Leiho irekia Colliouren](#) (*La Fênetre Ouverte à Collioure, 1905*) koadroak margotzeko. Azken lan hori Parisko Udazkeneko Aretolan erakutsi zuen.

“Donatello basapiztien artean”

1905eko Udazkeneko Aretoko antolatzaileek erabaki zuten kolore bizi-biziz margotutako hainbat koadro batera kokatzea VII. aretoan. Aretoaren erdian, tamaina txikiko eskultura nahikoa klasikoa jarri zuten. Louis Vauxcelles arte-kritikariak areto horretan ikusitako lanak deskribatzeko, hauxe idatzi zuen: “Donatello basapiztien artean”. Basapiztia hitza, *fauve* frantsesez, pintore berritzaile horien ikur bihurtu zen, haiek hala erabakita.

Udazkeneko Aretoko pintore *fauve*en artean, Henri Matisse, André Derain, Maurice de Vlaminck eta beste hainbat egon ziren.

Matissek aurkeztutako [Kapeladun emakumea](#) (*Femme au chapeau, 1905*) lanak kritika gogorak jaso zituen. Hala eta guztiz ere, Michel Stein bildumagile estatubatuarrak erosi egin zuen.

Stein familia

Leo, Gertrude, Michael eta Sarah Stein estatubatuarrak Parisera joan ziren bizitzera, XX. mendearen hasieran. Arte-bilduma garrantzitsu baten jabe izan ziren. Matisseren hainbat lan erosi zituzten: *Kapeladun emakumea*, [Marra berdea](#) (*La Raie Verte, 1905*) eta [Bizipoza](#) (*La Joie de Vivre, 1905-1906*), besteak beste.

Stein familiak Matisseren lanak erosi izanak beste zenbait bildumagileren interesa piztu zuen. Hori dela eta, 1905etik aurrera artistaren egoera ekonomikoak hobera egin zuen.

Magreb eta Italia

1906. urtetik Lehen Mundu Gerra hasi arte, Henri Matissek hainbat bidaia egin zituen. Bidaia horiek garrantzitsuak izan ziren artistaren lan-ibilbidean.

1906an, Aljeriara joan zen, eta Biskra oasia bisitatu zuen. Magrebeko artisau-lanak erosi zituen, batez ere zeramika eta oihalak; objektu horiek apaingarri gisa ageri zituen geroko hainbat koadrotan.

1907an, Italiara abiatu, eta Florentzia, Arezzo, Siena eta Padua bisitatu zituen. Paduako Giottoaren freskoek ikaragarri hunkitu zuten. Matissek honela azaltzen zuen zergatik miresten zituen Giottoaren lanak: “Giottoaren Paduako freskoak ikusten ditudanean, zailtasunak izaten ditut asmatzeko begi aurrean dudan eszenak Kristoren bizitzako zein eszena irudikatzen duen. Alabaina, segituan sumatzen dut irudi horiek adierazten duten sentimendua: sentimendu hori lerroetan, konposizioan, koloreetan dago”.

Nazioarteko artista

1906an, Henri Matissek Alfred Stieglitz argazkilari estatubatuarra ezagutu zuen. Stieglitzek Matisseren lanak erakutsi zituen New Yorken zuen galerian.

1908an, artistak Sergei Shchukin bildumagile errusiarra ezagutu zuen. Shchukinek [Mahai lagungarri gorria](#) (*La Desserte Rouge*, 1908) koadroa erosi zion Matisseri. Horrez gain, beste zenbait lan pintatzeko ere eskatu zion, Moskuko etxea apaintzeko.

Eskabide horren ondorioa artistaren lan famatuenetako bi izan ziren: [Dantza](#) (*La Dance*, 1909-1910) eta *Musika* (*La Musique*, 1910).

Andaluzia eta Magreb

1910-1911 urte bitarteko neguan, Matissek Frantzisko Iturrino pintorea bisitatu zuen Sevillan. Bisita horren ondoren, artista biak Marokora abiatu ziren elkarrekin.

Henri Matissek beste bi bidaia gehiago egin zituen Magrebera, 1912an eta 1913an.

Sevillan, pintoreak [Natura hila, Sevilla](#) (*Nature morte, Séville*; 1911) koadroa margotu zuen. Tangerren, formatu bereko hiru paisaia hauek pintatu zituen: *Akantoak. Marokoko paisaia* (*Acanthes, Paysage marrocaïn*; 1912), [Palmondoa](#) (*La Palme*) eta [Inkonte-belarrak](#) (*Les Pervenches*, 1912).

Lehen Mundu Gerra

Lehen Mundu Gerra hasi zenean, Henri Matissek izena eman zuen soldadu joateko, baina ez zuten onartu, 44 urte zituelako.

Marneko Gudua hasi baino lehen, artista Tolosa Okzitaniara abiatu zen, Marguerite alabaren etxera. Hortik Colliourera jo zuen. Herri horretan ezagutu zuen Juan Gris pintore kubista. Matisseren semeen irakasle izan zen Gris.

Colliouren, Matissek [Coillureko ate-leiho](#) (*Coilloureko porte-fenêtre*) izeneko lana pintatu zuen, besteak beste. Koadro horretan kubismoaren eragina nabaria da.

Praka gorridun odaliska, tailerretik museora

Hogeita hamarreko hamarkadan, Matissek Nizan egin zuen lan. Garai horretan, tamaina txikiko koadroak margotu zituen: bodegoiak, leihotik ikusitako paisaiak, zenbait erretratu eta odaliskei buruzko koadro-seriea.

Serie horretako koadro bat, [Praka gorridun odaliska](#) (*Odalisque à la culotte rouge*, 1921) izeneko, Parisko Luxembourg Museoak erosi zuen, Matissek amaitu bezain pronto.

Tahiti

1930ean, Henri Matisse Tahitira joan zen: bi hilabete eta erdi eman zuen irlak eta atoloiak bisitatzen. Bidaia horretako gogorapenek artistaren hainbat lan inspiratu zuten.

52 metro karratuko horma-irudia

1930eko irailean, Polinesiatik itzuli ondoren, Henri Matisse Estatu Batuetara abiatu zen. Bidaia horretan, Albert Barnes bildumagile estatubatuarra bisitatu zuen. Barnesek horma-irudi bat egiteko eskatu zion, Merion-en (Pensilvania) zeukan museo pribatuko areto nagusia apaindu nahi zuen-eta. Artistak gangetako petxinak dekoratu behar zituen: 52 metro karratuko azalera irregularra. Matissek erronkari aurre egin zion.

Petxina horiek dekoratzeko, pintoreak 1909ko *Dantza* lanaren gaiari eutsi zion berriro. Merioneko *Dantza* lanean artistaren helburua izan zen "zementuarekin eta harriarekin bat etorriko zen dekorazioa egitea". Asmo horrekin Matissek pabilioi handi bat alokatu zuen Nizan, eta hor jardun zuen lanean.

Dama-jokoa

Merioneko 52 metro karratuko hondoa koloretako paperez erreproduzitu zuen Nizan, baina ez eskalan, tamaina errealean baizik. Figurak ere moztu zituen paper grisean. Ondoren, pieza guztiak batera eta bestera mugitu zituen, "dama-joko batean piezak lekualdatzen diren bezala". Gustuko irudia lortu zuenean, Merionera abiatu, eta hor konturatu zen erabilitako neurriak ez zirela zuzenak. Nizara jo zuen, berriz ere, prozesu guztia errepikatuzera. Hiru urteko lanaren ondoren, *Dantza* berria amaitu egin zen.

Matisse harro sentitu zen Barnesentzat egindako lanaz. Behin galdetu zioten zergatik ez zuen proiektua eskala txikiagoan landu, eta, gero, proiektore batekin tamaina errealean proiektatu. Matissek horrela erantzun zuen: "Beharbada, garrantzitsua izango litzateke onartzea konposizioa 52 metro karratuko azaleraren eta pintorearen arteko borroka latzaren ondorioa izan dela. Azalera hori, lehenengo eta behin, nire espirituaz jabetu behar zuen".

Simplifikazioaren bidean

1933tik aurrera, Matissek irudiak sinplifikatu egin zituen. Sinplifikatzeko joera horren erakusle koadro hauek dira: [Biluzi arrosa](#) (*Le nu rose*, 1935), [Musika](#) (*La Musique*, 1939) eta [Blusa errumaniarra](#) (*La Blouse roumaine*, 1940).

Lumaz egindako marrazkietan ere, Matissek bitartekoen sinplifikaziora jo zuen. Marrazki hauek jokabide horren emaitza dira: *Adatsa (La Cheveleure, 1932)* eta *Biluzia ispiluaren aurrean belauniko (Nu agenouillé devant un miroir, 1937)*. Azken marrazki horretan pintorea bera agertzen da modeloarekin, lanean. Henri Matissek hogeita hamarreko hamarkadan pintatutako koadro askotako modelo Lydia Delectorskaya errusiarra izan zen. Delectorskaya, modelo izateaz gain, artistaren laguntzailea eta idazkaria ere izan zen.

Gorria eta Beltza

1937ko neguan, Matissek Monte-Carloko Ballets Russes dantza-konpainiarentzat lan egin zuen: [Gorria eta Beltza](#) (*Le Rouge et le Noir*) ikuskizunerako eszenografia eta jantziak diseinatu zituen.

Lan hori egiteko, Matissek ebakitako paperen teknika garatu zuen: irudikatu nahi zituen formak gouache pinturaz koloreztatutako paperetan moztu, eta beste euskarri batean itsasten zituen.

Bigarren Mundu Gerra

1939an, Amélie eta Henri Matisse banatu egin ziren. Urte horretan bertan Alemaniako tropak Frantzia sartu ziren. Pintoreak Brasilerara joateko bisa lortu arren, Frantzia gelditu zen. Erabaki horren arrazoiak honela azaldu zizkion Pierre semeari: “Desertore sentituko nintzatekeen”.

Gaixoaldia

1941ean, medikuek Matisseri minbizia diagnostikatu zioten. Ebakuntza egin, eta gaixotasuna hedatzea eragotzi zuten. Alabaina, ebakuntzak hernia bat eragin zion, eta, harrezkero, mugitzeko arazoak izan zituen. Aulki gurpilduna erabili behar izan zuen batetik bestera ibiltzeko, eta aldi luzeak eman behar izan zituen ohean. Halere, artistak lanean segitu zuen, beste zenbait pertsonaren laguntzarekin.

Ebakitako paperak

Gaixotasunaren ondoren, Matisseri nekeza gertatzen zitzaion olio pinturarekin jardutea. Hori dela eta, ebakitako paperen teknika berreskuratu, eta [Jazz](#) izeneko liburua osatu zuen, 1944an.

Ebakitako paperen teknika tamaina handiko zenbait lanetan ere erabili zuen Matissek. 1946an, Beauvais-eko manufakturetakoek tapiz batzuetarako patrioiak eskatu zizkioten. Artistak Tahitiko bidaia gai hartuta, bi konposizio handi hauek burutu zituen: *Polinesia. Itsasoa (Polynésia. La mer)* eta [Polinesia. Zerua \(Polynésia. Le ciel\)](#).

Ilustratutako liburuak

Hogeita hamarreko hamarkadan, Henri Matissek bi liburutarako ilustrazioak egin zituen: 1931n, Stephane Mallarmé-ren *Poesiak* liburuarenak; eta, 1934an, James Joyceren *Ulises* nobelarenak.

Berrogeiko hamarkadan, artistak hainbat liburu ilustratu zituen: Orleanseko Karlosen *Poemak* eta Charles Baudelaire-ren *Gaitzaren loreak (Les Fleurs du mal)* poema-liburua, besteak beste.

Vence-ko Errosarioko Amaren Kapera

1942-1943 urte bitartean, Matisse gaixorik zegoela, Monique Bougeois erizainak zaindu zuen. 1946an, Monique moja zen Venceko domingotarren komentuan. Komentu horretako serorek estalpe bat erabiltzen zuten meza egiteko. Mojek estalpe hori beirate batzuekin apaindu nahi zuten, eta erizain ohiak aholkua eskatu zion Matisseri.

Fededuna izan ez arren, Henri Matissek diruz zein lanez lagundu zuen Moniqueren asmoa bete zedin: beirateak, hormetako dekorazioa eta beste zenbait apaingarri diseinatu zituen. 1951n, Nizako apezpikuak bedeinkatu zuen kapera.

Biluzi urdinak

Matissek azken urteetan errealitatean sustraitutako abstrakzioa defendatu zuen. Abstrakziorako joera hori nabaria da artistak 1952an egindako biluzi urdinen seriean. [Biluzi urdinak](#) paper urdinean ebakitako emakumezko lau irudi monumental dira.

***Rosace* (arrosa-leiho)**

Rockefeller familiak arrosa-leiho bat diseinatzeko eskatu zion Matisseri, Abby Aldrich Rockefeller andrea oroitzeko. Henri Matisseren azken lana izan zen. 1954ko azaroaren 3an, bihotzekoak jota hil zen.

Henri Matisseren zenbait lanen iruzkinak

[Leiho irekia Colliouren](#), 1905

Matissek askotan margotu zituen leihoak eta leihoetatik ikusten zituen paisaiak. Koadro honetan, Collioureko gelako leihoa irudikatu zuen, eta hortik ikusten zuen itsasaldea. Teknika ezberdinak erabili zituen barnealdea eta kanpoaldea margotzeko. Leihotik ikusitako itsasaldea pintzelkada luzez pintatu zuen. Barnealdea margotzeko, berriz, kolore lauen teknika baliatu zuen. Teknika hori Paul Gauguinek sortu zuen, eta Ozeanian margotutako azken lanetan erabili zuen. Tahitiko koadro horiek Colliouren ikusteko aukera izan zuen Matissek, Paul Gauguinen lagun baten etxean.

[André Derainen erretratua](#), 1905

Colliouren zirela, Derainek eta Matissek erretratua egin zioten elkarri. Matissek margotutako erretratuan, eguzkiak André Derainen aurpegiaren alde bat argitzen du, eta bestea itzalean geratzen da. Artistak naturaren koloreak imitatzeari muzin egin zion: argietarako laranja-kolore bizi-bizia aukeratu zuen, eta itzaletarako, berdea.

Laranjaren eta berdearen osagarriak urdina eta gorria dira, hurrenez hurren. Matissek kolore horiek aukeratu zituen Derainen alkandora eta txapela margotzeko. Kolore osagarriak erabiliz, bi helburu lortu zituen: koloreen arteko oreka eta kolore guztien intentsitatea areagotzea.

[Kapeladun emakumea](#), 1905

Kapeladun emakumearen modelo Amélie Matisse izan zen, pintorearen emaztea. Matissek Udazkeneko Aretoan aurkeztu zuen lana, Colliouren margotutako beste zenbait koadroekin batera. Erakusketaren antolatzaileek Matisseren, Derainen eta beste zenbait artista berritzailearen lanak batera kokatu zituzten VII. aretoan. Lan horien guztien erdian, Florentziako Errenazimentuko estiloan landutako eskultura bat jarri zuten. Kritikari batek

areto nagusiko lan horiek eragin zioten zirrara deskribatzeko, hitz hauek idatzi zituen: “Donatello basapiztien artean” (“Donatello parmi les fauves”). Harrezkero, *fauve* hitza lotu zitzaion artista talde horri.

Gaiari dagokionez, *Kapeladun emakumea* erretratu burges arrunta da: Amélie soineko, kapela eta eskularru dotoreak jantzita agertzen da, abanikoa eskuan. Kolorearen tratamenduari dagokionez, ordea, koadroa 1905ean erabat berritzailea izan zen. Lan honetan kolore ez-naturalak erabili zituen: aurpegiko itzalak margotzeko, pintzelkada berdez eta urdinez baliatu zen; lepoa laranja pintatu zuen, eta ilea, gorri-gorri. Hainbat kolore-orbanek modeloaren jantziak eta apaingarriak irudikatzen dituzte.

Azken emaitza ezin koloretsuagoa eta deigarriagoa da. Halere, Matisseri galdetu ziotenean benetan zer koloretakoak ziren Améliek soinean zituen jantziak, honela erantzun zuen: “Beltzak, jakina”.

Aretoko iskanbila gorabehera, Matissek koadroa saldu egin zuen. Stein familiako kideek erosi zioten *Kapeladun emakumea* eta beste hainbat lan.

Bizipoza, 1905-1906

Koadro honetan, artistak Urrezko Aroaren topikoa irudikatzen du: gizakiok naturarekin bat egiten genuen garai idiliko hura, hain zuzen ere..

Utopia hori ikusarazteko, Matissek ohiko motiboak hautatu zituen: zuhaitzak, loreak, musikariak, dantzariak, etab. Alabaina, koadroa margotzeko modua erabat berritzailea izan zen.

Batetik, pintoreak motibo guztiak lerro kurbatu sinpleekin marraztu zituen, eta kolore lauekin margotu, bolumenen modelatuari uko eginez. Bestetik, erabilitako koloreak ez zituzten naturakoak imitatzen: irudi batzuek larruazal berdea dute, eta zenbait zuhaitzek arrosa-koloreko hostoak dituzte. Azkenik, perspektiba klasikoari uko egin zion; horren ordez, espazioak kolore-eremu zabalen bitartez antolatu zituen.

Lan honek ekarri zituen berrikuntzak ez ziren guztien gustuko izan, eta Matissek kritika gogorak jaso zituen, koadroa Independentteen Aretoran aurkeztu zuenean.

Kritika txarrak gorabehera, Leo Steinek erosi zuen lana. Picassori ere zirrara eragin zion. Zenbaiten ustetan, Picassok *Avignongo andereñoak* margotu zituen Matissek *Bizipozarekin* egindako erronkari erantzuteko.

Marra berdea, 1906

Matissek erretratu honetan emaztearen aurpegiera eta gorpuzkera forma sinpleekin irudikatu zituen. Figura eta hondoa kolore hutsekin margotuta daude. Koadroaren elementu nagusia pintzelkada berdea da: pintzelkada horrek aurpegi osoa zeharkatzen du kopetatik kokotseraino, eta aurpegiaren alde argitua eta itzaldua banatzen ditu.

Matissek aurrera begira eta espresiorik gabe margotu zuen Amélie: haren aurpegia maskara bat balitz bezala. Hala eta guztiz ere, irudi erakargarria sortu zuen; izan ere, marra berdearen laguntzaz, koadroaren kolore-zona guztiak egoki antolatu zituen, koloreen arteko oreka lortzeko. Oreka horrek sortzen du irudiari darion lasaitasun-inpresioa.

Marqueriteren erretratua, 1906-1907

Matissek askotan margotu zuen alaba nagusia, Marguerite. Koadro honetan, zutik pintatu zuen haren gorputz erdia, atzean hondo laua zuela. Erretratua amaitu berri zuela, Picassori eskaini zion bodegoi baten truke.

Zenbait adiskidek esan ei zuten artista biek koadrorik eskasena eman zizkiotela elkarri. Françoise Gilot pintoreak, Matisseren miresleak eta zenbait urtean Picassoren neskalaguna izandakoak, beste modu batean azaldu zuen koadro-trukaketa. Giloten ustetan, artista bakoitzak pintatzeko modu propioa izanik, modu horrekin zerikusirik ez zuen koadro bana eman zioten elkarri. Picasso, esate baterako, harrituta zegoen Matissek sinpletasuna bilatzeko zuen adorearekin. Izan ere, Henri Matissek Marguerite ume baten xalotasunarekin margotu zuen, lerro sinpleak eta kolore lauak baliatuta.

Dantza (1909) eta Musika (1910)

1908an, Sergei Shchukin bildumagile errusiarrek Matisseren zenbait koadro erosi zituen Parisen. Hurrengo urtean, 1909an, Moskuko etxea dekoratzeko bi mihise handi eskatu zizkion artistari. Pintura horien gaiak musika eta dantza izan ziren.

Dantza izeneko koadroak 259,7x390,1 cm-ko neurriak ditu. Azalera handi hori betetzeko, Matissek lerro sinplez marraztutako bost irudi erabili zituen, eta horiek margotzeko, hiru kolore huts: gorria, berdea eta urdina.

Dantza da bizipoza adierazteko bidea edo seinalea. Koadro horretan, Matissek dantzaren mugimendu erritmikoa eta dantzarien esfortzu fisikoa nabarmentzen ditu. Batetik, dantzarien gorputzak lerro ondulatuen bitartez lotzen ditu, dantzaren mugimendu zirkularra gogoratzeko. Bestetik, dantzarien ahalegina adierazteko, haien jarrerak eraldatu, eta gorputzak modu espresiboan desitxuratzen ditu.

Dantzaren osagarria Musika da. Koadro horretan, Matissek beste egundoko bost figura margotu zituen paisaia eskematiko batean. Berriro ere, *Dantzan* erabilitako kolore hutsak baliatu zituen: gorria, berdea eta urdina. Halere, elementu horiekin *Dantzak* bizipoza erakusten du; *Musikak*, aldiz, lasaitasuna eta gelditasuna. Horretarako, Matissek hiru musikari eta hiru entzule margotu zituen: figura horiek isolatuta jarri zituen altuera ezberdinetan, pentagrama bateko notak balira bezala.

Ate-leiho Colliouren, 1914

Matissek leiho ugari margotu zituen bere koadroetan. Leiho gehienek lotzen dute etxe-barnealde jakin bat eta bertatik ikusten den paisaia. Koadro honetako ate-leihotik, ordea, ez dugu ikusten ez barnealderik, ezta kanpoalderik ere. Ate-leiho bera da koadroaren gaia.

Matissek motibo hori irudikatzeke erabili zituen forma geometriko soilek ia bat egiten dute mihisearen planoarekin. Dena dela, irudia ez da erabat laua, ezta guztiz abstraktua ere. Sakontasuna adierazteko, pintoreak hainbat tonu beltzekin margotu zituen zorua eta erdialdeko irekidura.

Bestalde, ezker aldeko errektangelu urdinean margotu zituen marrek kontraleiho baten ildaskak irudikatzen dituzte.

Jazz liburuko Pailazoa (1943) eta Laguna (1944)

1941ean jasan zuen gaixoaldiaren ondoren, Matisse lanean hasi zen moztutako gouache-teknikarekin. Editore batek artistari proposatu zion irudi horietako batzuk liburu batean argitaratzeko. Horrela sortu zen *Jazz* liburua.

*Jazz*ek hogeita irudi biltzen ditu; irudiotan artistak berak pintzelez idatzitako zenbait testu labur irakur daitezke. Liburuaren lehenengo irudiak *Pailazoa* (*Clown*) du izena: motibo nagusia esekitako giza irudi bat da.

*Jazz*en hasierako irudiak zirkoaren munduari lotuta daude. Azken irudiek, berriz, Tahitiko atolonetako lagunak edo urmaelak ageri dituzte.

Laguna izeneko irudia, liburuaren XVIII. plantxa da. Artistak moztu zituen forma uhinduek Polinesiaiko itsasoetako hondoak gogorarazten dizkigute.

Pintoreak berak eta Tériade editoreak *Zirkoa* izenarekin argitaratu nahi zuten liburua. Halere, Matissek, irudiak hautatzean, erabaki zuen Tahitiko oroitzapenei buruzko irudiak ere sartuko zituela liburuan. Hori dela eta, izena aldatu behar izan zioten.

Matissek *Jazz* izena aukeratu zuen bi arrazoirengatik: alde batetik, jazz hitza bera grafikoki interesgarria iruditzen zitzaiolako; bestetik, jazz musika bizi-bizia eta bat-batekoa delako, liburuko irudien antzerakoa.

Venceko kaperako beirateak

Matissek, Venceko beirateak egiteko, San Joanen araberako Apokalipsiaren pasarte hau aukeratu zuen: “Gero, ur biziko ibai bat erakutsi zidan aingeruak, beira bezain distiratsua, Jainkoaren eta Bildotsaren tronutik irteten zena. Hiriko plaza erdian, ibaiaren bi ertzetan, bizia ematen duen zuhaitza zegoen; urtean hamabi uzta ematen zituen, hilean behin, eta zuhaitzaren hostoak herrientzat sendagai ziren”.

Bizia ematen duen zuhaitzaren hostoak irudikatu zituen Matissek kaperako beirateetan. Forma sinpleak erabili zituen, eta hiru kolore: urdina, berdea eta

horia. Sinpletasuna bilatu zuen “azalera oso mugatu baten bitartez, mugagabetasunaren ideia adierazteko”.

Pablo Picasso

Biografia

Malaga eta A Coruña

Pablo Ruiz Picasso Malagan jaio zen, 1881ean. Aita, José Ruiz, hiri horretako Arte eta Lanbide Eskolako irakaslea izan zen; harekin hasi zen Pablo marrazketa ikasten eta olioiz margotzen.

1891n, aitak irakasle-lanpostua lortu zuen A Coruñaiko institutuan. Familia osoa joan zen hiri horretara, eta bertan lau urtez bizi izan ziren. Urte horietan, Pablok batxilergoa ikasi zuen, eta Arte Eder Eskolan ibili zen ikasle.

A Coruñan bizi zela, Pablo gazteak era askotako lan artistikoak egin zituen. 1893an, *Zuria eta Urdina (Azul y Blanco)* aldizkaria sortu zuen; bertan, Picassok idatzi eta marrazkiak egin zituen. 1894an, gurasoen erretratua margotu zuen. Urte horrexetan hasi zen koadernoetan marrazten eta marrazki bakoitzari data jartzen; koaderno horiek interesgarriak dira, pintore gaztearen lan-ibilbidea erakusten baitigute.

1895ean, Pablo Picassok hainbat olio-pintura margotu zituen: *Arrantzale Zaharra* eta [Neskatxa oinutsik](#), besteak beste.

Bartzelona

1895ean, Jose Ruiz, Picassoren aita, Bartzelonako Llotjako Arte eta Lanbide Eskolako (Escola d'Arts i Oficis de la Llotja) irakasle izendatu zuten: familia osoa Bartzelonara joan zen. Hiri horretan, Llotjako Eskolan goi-mailako ikasketak egiten hasi zen Pablo.

1896an, Picassok [Lehenengo jaunartzea](#) margotu zuen: protagonista pintorearen arreba zen, Lola. Koadro hori Arte Ederren eta Industria Artistikoen III Erakusketan onartu zuten. *Lehenengo jaunartzea* margotu zuen urtean, bi erretratu ere margotu zituen: [José Ruiz Blasco](#) (artistaren aitaren erretratua), akuarelaz egindakoa, eta [Autoerretratua](#), olioiz pintatua. Lehena oso akademikoa da; bigarrena, berriz, modu libreagoan dago landuta.

1897an, [Zientzia eta Karitatea](#) izeneko mihisea amaitu zuen Picassok. Madrilgo Arte Eder Erakusketa Nazionalera bidali, eta ohorezko aipua lortu zuen.

Urte horretan, Pablo Picasso Madrilera joan zen, San Fernando Arte Eder Akademian ikasteko. Madrilen zenbait hilabete eman ondoren, gaixotu egin zen, eta Bartzelonara itzuli behar izan zuen.

Els Quatre Gats

1897an, Bartzelona hiri burges eta industrialala zen: Madrilek baino giro artistiko biziagoa eta kosmopolitagoa zuen. 1897an, Pere Romeuk *Els Quatre Gats* (*Lau katuak*) garagardotegia ireki zuen. Lokal hori Bartzelonako artista gazteen bilgune bihurtu zen berehala. Romeuk hainbat erakusketa antolatu zituen *Els Quatre Gatsen*: 1898an, esate baterako, Darío Regoyosek eta Isidro Nonellek erakutsi zituzten beren lanak; 1900ean, Carles Casagemas-ek eta Pablo Picassok.

Picassok artista asko ezagutu zituen *Els Quatre Gatsen*: lehen aipatutako Carles Casagemas eta Isidro Nonell, pintoreak; Manolo Hugué, pintorea eta eskultorea; Jaume Sabartés, eskultorea eta idazlea; eta beste hainbeste.

Picassok 1898-1899 urte bitartean margotu zituen koadroek pintore frantsesen eragina dute, batez ere Toulouse Lautrecena. Koadro horien artean, bi erretratu interesgarri daude: [Lola, artistaren arreba](#) eta [Carles Casagemasen erretratuak](#), biak 1899. urtean margotutakoak. Casagemasen erretratuak agerian uzten du artista haren izaera depresiboa.

Paris

1900ean, Pablo Picasso Parisera joan zen Carles Casagemasekin. Hiri horretan, Isidro Nonellek utzi berri zuen estudioan geratu ziren biak.

1901-1904 urte bitartean, Picasso Paris eta Bartzelona artean bizi izan zen. Garai horretan sinatu zuen bere lehen kontratua [Pere Mañach](#) arte-merkatari katalanarekin; kontratu horren arabera, Mañachek Picassori hilean 150 franko ordainduko zion, artistak egingo zituen lan guztien truke.

Mañachen bitartez, Ambroise Vollard arte-merkataria ezagutu zuen, eta haren galerian erakusketa bat egin zuen Frantzisko Iturrino euskal pintorearekin batera. Geroago, artista biek beste erakusketa bat egin zuten elkarrekin, Bilbon.

1900. urtetik Picassoren Aldi Urdina hasi zen arte, pintoreak kolore biziak eta pintzelkada solteekin islatu zuen auzo marjinaletako giroa: tabernak, kabaretak, antzokiak... Garai horretakoak dira honako koadro hauek: [Le Moulin de la Galette](#) (1900), [“La Nana” dantzaria](#) (1901) eta [Pierreuse, eskua lepoan](#) (1901).

Casagemasen heriotza

1901eko otsailean, Carles Casagemasek, Picassoren lagunak, bere buruaz beste egin zuen Parisen, antza denez emakume batek, Germaine modeloak, onartu ez zuelako. Germainek Picassorekin ere izan zituen harreman sentimentalak.

Lagunaren heriotzak jota utzi zuen Picasso; haren omenez, koadro hauek margotu zituen: *Oroitzapena*, *Casagemasen hileta* (1901) eta [Casagemasen heriotza](#) (1901).

Casagemasen heriotzari buruzko koadroek Picassoren estilo-aldaketa iragartzen dute: ia monokromoak dira; kolorea hedatuta dago kolore-masa handien bitartez, eta lerroak garrantzi handiagoa du aurreko lanetan baino.

Ezaugarri horiek guztiak ere antzematen ditugu 1901. urtean egindako lan hauetan: *Sabartesen erretratua*, *Arlequin eta neska-laguna* eta [Autoerretratua](#).

1902an, Picassok [Emakume eskale uzkurtua](#) margotu zuen Bartzelonan. Geroago, artistak [Bi ahizpak](#) izeneko lana pintatu zuen.

1903an, Pablo Picassok [Bizitza](#) koadroa pintatu zuen. Koadro hori Carles Casagemas gogoratzen duten koadroetatik azkena da.

Bizitzaz gain, Picassok 1903an margotutako koadroen artean, bi hauek aipatu behar dira: [Gitarra-jotzaile zaharra](#) eta *Judu zaharra*, biak urdinez margotuak.

Bateau Lavoir

1904an, Pablo Picassok Bartzelona utzi, eta Parisera itzuli zen. Paco Durriok estudio bat utzi berria zuen hiri horretako Montmatre auzoan: estudio horretan gelditu zen Picasso. Artistaren estudioa eraikin zahar batean zegoen. Behin, Picassoren lagun batek, Max Jacob poetak, eraikin hura alderatu zuen Sena ibaian garbitoki gisa erabiltzen ziren ontzi zaharrekin. Paristarrek ontzi horiei *bateau lavoir* deitzen zieten. Hori dela eta, Picassoren Montmatreko estudioa izen horrekin ezagutzen dugu.

Bateau Lavoirren, Picassoz gain, beste zenbait artista ere bizi izan ziren. Horien artean, Manuel Hugué eta Ricardo Canals katalanak zeuden. Picasso bien adiskidea izan zen, eta biekin lan egin zuen: Manuel Huguék eskultura-lanekin lagundu zion, eta Canalsek akuafortearen teknika irakatsi zion. Canalsen emaztearen bitartez, Fernande Olivier ezagutu zuen Picassok.

Fernande

1904ko udan, Pablo Picassok Fernande Olivier modeloa ezagutu zuen. Fernanderekin izan zuen harremana Picassoren lehenengo harreman egonkorra izan zen. Zazpi urtez bizi izan ziren elkarrekin: 1905 urtetik 1912 urtera arte.

Elkarrekin eman zuten denboran, Picassok hainbat aldiz irudikatu zituen Fernanderen aurpegia eta gorputza. Artistak egin zuen lehenengo eskultura kubista, esate baterako, Fernanderen eskultura-erretratua da.

Arlekinak eta txerpolarriak

Pablo Picassoren koadroetan, urdina izan zen kolore nagusia, 1904 urtera arte. Urte horretan, bizitokia aldatzearekin batera, artistaren koadroetako kolore-aukera ere aldatzen hasi zen. Bateau Lavoirren pintatutako koadroetan aurrekoetan baino kolore suabeagoak agertzen dira. Aldaketa horren adibide da [Emakumea belearekin](#) izeneko lana.

1905. urtearen hasieran, Paris Serrusier Galeriak erakutsi zituen Picassok pintatu berri zituen lanak. Lan horietako protagonistak txerpolarriak eta arlekinak

ziren. Irudi horiek margotzeko, artistak kolore argiak erabili zituen, eta kolore horien artean, arrosa zen nagusi.

Charles Morice arte-kritikariak hitzaurrea egin zion erakusketaren katalogoari. Hitzaurre horretan, Moricek artistaren bide berrian sumatutako argitasuna goraiatu, eta arestiko tristura urdina gaitzetsi zuen.

Gaur egun, artearen historialari askok, Moriceren hitzak kontuan izanda, honako bi aldi hauetan banatzen dute Picassok 1901etik 1906ra arte egindako pintura-lana: Aldi Urdina 1901-1904 urte bitartean kokatzen dute; Aldi Arrosa, 1904tik 1906ra arte.

Adituek Aldi Arrosan kokatzen dute [Txerpolari familia](#) (1905), eta [Akrobata familia tximuarekin](#), besteak beste.

La Closerie des Lilas

1905ean, Guillaume Apollinaire poetak *Closerie des Lilas* kafe-etxeko literatura-tertulietara gonbidatu zuen Picasso. Kafe-etxe horretan elkartutako tertuliakideek klasizismo berria defendatu zuten pinturan, eta klasikotzat jotako lanak berrikusi beharra aldarrikatu zuten. Klasikoak miresten zituzten; haien artean, Ingres pintorea.

1905eko Udazkeneko Aretoa

1905eko Udazkeneko Aretoak Ingresen eta Maneten lanen atzera begirako erakusketa bana eskaini zuen. Bertan, *fauveen* lanak eta Henri Rousseau «Mugazaina»ren zenbait koadro ere egon ziren ikusgai.

Picassok ez zituen *fauveen* proposamenak aintzat hartu; Ingresen *Bainu turkiarrak*, ordea, eragina izango zuen artistak hurrengo urtean pintatutako *Harena* izeneko koadroan. Henri Rousseau «Mugazaina»ren lanen primitibismoak ere aparteko zirrara eragin zion Malagako pintoreari.

Herbehereak

1905eko udan, Tom Schilperoort idazle nederlandarrak Picasso gonbidatu zuen Herbehereetako Schoorl herria bisitatzera. Artistak hor margotu zituen lanen artean, aipatzekoa da [Nederlandarra kofiarekin](#) koadroa, Paco Durrio eskultoreari eskainia.

Gertrude eta Leo Stein

1905eko udazkenean, Picassok Gertrude eta Leo Stein bildumagile estatubatuarrak ezagutu zituen. Leok *Akrobata-familia tximuarekin* lana erosi berria zuen. Anai-arreba biek artistaren estudioa bisitatu, eta Picassoren hainbat lan erosi zituzten. Harrezkero, Picassok askotan bisitatuko zituen Stein anai-arrebak. Haien etxean artista eta intelektual asko ezagutu zituen, besteak beste, Henri Matisse eta André Derain pintoreak.

Arte iberiarra

1906ko martxoan, Picassok arte iberiarrari buruzko erakusketa bat ikusi zuen Louvreko Museoan. Osunako eta Cerro de los Santoseko aztarnategietan aurkitutako eskultura iberiarrek eragin nabaria izan zuten artistak 1906an eta 1907an egindako lanetan.

Gertrude Steinen erretratua

1906ko neguan, Gertrude Steinek erretratu bat egiteko eskatu zion Picassori. Artista Gertruderekin hasi zen lanean, baina, estatubatuarra estudiotik laurogei bider baino gehiago pasatu ondoren, Picasso ez zen gai izan erretratu hura amaitzeko.

Azkenean, pintoreak koadroa alde batera utzi, eta atsedeen hartzea erabaki zuen: Katalunia aldera jo zuen Fernanderekin. Lehenengo, Bartzelonara joan ziren, Fernandek Picassoren familia eta lagunak ezagut zitzan. Ondoren, Lleidako Pirinioetako Gósol herrira abiatu ziren.

Gósol

Pablo Picassok eta Fernandek hiru hilabete eman zituzten Gósolen. Aldi horretan, artistak zenbait olio-pintura margotu zituen, baita marrazki-koaderno interesgarri bat osatu ere.

Olio-pinturetan, gai nagusia biluzia izan zen. Zenbaitetan, gizonezko biluziak pintatu zituen; horien artean, aipagarria da [Bi Anaia](#) izenekoa. Beste hainbat lanetan, Fernanderen gorputza margotu zuen era askotako jarreretan. Azken multzo horretako koadroen artean, aipagarriak dira *Biluzi arrosa handia* eta *Harena*. Marrazkiei dagokienez, Gósolen egindako *Koaderno katalanean*, artistak Fernanderen aurpegia eskematikoki marraztu zuen, espresiorik gabeko maskara balitz bezala. Bide hori segitu zuen Picassok 1906. urtearen amaieran margotu zituen erretratuetan.

Gauguin eta Cezanne

1906ko Udazkeneko Aretoan, Picassok Paul Gauguinen atzera begirako erakusketan egon zen. Udazken hartan, urriaren 22an, Paul Cezanne pintorea hil egin zen. Aretoak Cezanneren hamar koadro jarri zituen ikusgai. Pablo Picassok Gauguinen eta Cezanneren lanak miretsi egiten zituen: Cezanneren koadroek eragin handia izan zuten Picassok 1906tik aurrera egindako lanetan.

1906. urtearen amaieran, Pablo Picassok hiru koadro garrantzitsu amaitu zituen: [Gertrude Steinen erretratua](#), [Autoerretratua paleta eskuan](#) eta [Bi emakume biluzik](#). Erretratu biek primitibismo iberiarraren eragina dute. *Bi emakume biluzik* koadroak Cezanneren bainulariak ekartzen dizkigu gogora.

Les Demoiselles d'Avignon

1907. urtearen hasieran, Picasso koadro handi bat margotzen hasi zen. Koadro horretan, zenbait emakumezko biluzik agertzen ziren. Artistak, koadro prestatzeko, marrazki asko eta bozeto bi egin zituen. Hainbat hilabetetako lanaren ondoren, koadroa gaur egun dagoen moduan zegoen: artearen historialari batzuen ustez, amaituta; beste zenbaiten ustez, amaitu gabe. Edonola ere, Picassok koadro hura Bateau Lavoir estudioan gorde zuen, eta

lagun gutxi batzuei baino ez zien erakutsi. Bederatzi urte geroago, 1916an, jendaurrean erakutsi zuen lehen aldiz. 1924an, bildumagile batek 25.000 frankoren truke erosi zuen: diru gutxi, koadroaren tamaina kontuan izanda.

1907. urtean, Picassok emakumezko biluziaren gaiari buruzko beste zenbait koadro pintatu zituen: *Emakumea biluzik, besoak jasota*; [Mantelinen dantza \(biluzia oihalekin\)](#); eta [Hiru emakume](#) besteak beste.

Lan horiek guztiek *Avignongo andereñoen* antza dute, tamainaren zein estiloaren aldetik. Picassok, ordea, ez zituen gorde; berehala saldu zituen: Paul Guillaumek erosi zuen lehena; eta Leo eta Gertrude Steinek, beste biak.

Ez dago batere argi zergatik gorde zuen Picassok *Avignongo andereñoak* lana. Lehen esan bezala, historialari batzuek uste dute artistak ez zuela koadro hura amaitutzat eman hainbat urte pasa arte. Haien iritziz, denborak amaitu zuen koadroa.

Maskara afrikarrak

1906an, Pablo Picasso Afrikako eta Ozeaniako objektuak erosten hasi zen; Bateau Lavoir estudioan jarri zituen ikusgai.

Kontinente bi horietako arte-bildumak ikusteko, Pablo Picassok Parisko Trokaderoko Etnografia museoa bisitatu zuen 1907ko uztailean. Bertan ikusitako arte-objektuek eragina izan zuten artistaren geroko lanetan. Izan ere, 1907-1909 urte bitartean margotutako hainbat irudik maskara afrikarren fisonomia dute. Horrelakoak dira, esate baterako, arestian aipatutako *Mantelinen dantza* eta *Hiru emakume* koadroetako irudiak, baita *Avignongo andereñoen* eskuineko emakumeak ere.

Georges Braque

1907ko martxoan, Pablo Picassok Georges Braque pintorea ezagutu zuen. Braque pintore *fauvea* zen, baina urte hartako Udazkeneko Aretoan Cezanneren atzera begirako erakusketan egon zen; erakusketa horrek estiloa aldarazi zion Braqueri: *Bidezubia Estaquen* (1907) lana, adibidez, fauvismotik urrundu, eta Cezanneren estilora hurbildu zen.

1907ko urtearen amaieran, George Braquek Picassoren estudioa bisitatu zuen. Picasso mihise handi hauek margotzen ari zen: [*Avignongo andereñoak*](#) eta *Hiru emakume*. Lan horietan, bereziki *Hiru emakume* koadroan, Picassok emakumezkoen gorputzak eta aurpegiak erabat sinplifikatu zituen, arte primitiboaren ereduei jarraituz. Alabaina, irudien bolumenak islatu zituen planoen bitartez, eta plano bakoitzari argitasun-maila jakin bat eman zion, Cezannek egin ohi zuen bezala.

Pablo Picassoren ikerketek Braqueren interesa piztu zuten. 1908an, Braque bera ere hasi zen esperimendatzen emakumezko biluziaren gaiaren inguruan. Lan horren emaitza 1908an margotutako *Biluzi handia* izan zen. Uda aldera, berriz, George Braquek paisaiak margotu zituen Estaque herrian: *Etxea Estaque* eta *Etxeak Estaque*. Koadro horietan, arkitekturako zein naturako elementuen formak erabat sinplifikatu zituen Braquek.

Paisaia horietako batzuk Udazkeneko Aretora bidali zituen. Epaimahaiak ez zituen gustuko izan, eta baztertu egin zituen.

Antza denez, Louis Vauxcelles arte-kritikariak kubismo hitza sortu zuen, Braqueren koadro horiei buruz idatzitako artikulu batean.

La Roche-Guyon eta Horta del Ebro

1908. urtearen amaieran, Picassoren eta Braqueren arteko harremanak estutu egin ziren. Hurrengo urtean, 1909an, ia egunero batzen ziren pinturari buruz eztabaidatzeko edota lana elkarri erakusteko.

1909ko udan, artista biak Paristik aldendu ziren: Braque La Roche-Guyon herrira joan zen, eta Picasso, Horta del Ebrora. Harrezkero, herri bi horiek kubismoaren sorrerari lotuta egongo dira. Izan ere, Braquek uda hartan margotutako paisaiak eta Picassok Hortan pintatutakoak kubistatzat jotzen ditugu gaur egun.

La Roche-Guyonen, Braquek bertako gazteluaren hainbat ikuspegi margotu zituen. Hortan, Picassok honako koadro hauek pintatu zituen, besteak beste: *Hortako fabrika*; *Uraska, Horta*; *Emakumea madariekin*; eta *Natura hila likore botilarekin*.

Kubismoaren lehen etapari kubismo analitikoa deitu diote adituek. Etapa horretan, Braquek eta Picassok pintatzeko modu berria sortu zuten, eta, horretarako, hiru pausu garrantzitsu hauek eman zituzten: lehenik, espazioari dagokionez, artista biek espazio ilusionistari uko egin zioten, hau da, ez ziren saiatu irudimenezko sakontasuna simulatzen berez bi dimentsio dituen pintura-planoan; bigarrenik, koadro kubistetako motiboen oinarrizko formak pintatu zituzten artistek, hainbat ikuspuntutatik ikusita; eta hirugarrenik, koloreari erreparatuz gero, kubismoaren lehen etapako koadroak ia monokromoak ziren: kolore grisak eta arreak ziren nagusi.

Erretratu kubistak

1910ean, George Braque Paristik kanpo ibili zen, soldadutza egin behar izan zuen-eta. Pablo Picassok bakarrik segitu zuen lanean. Giza irudia izan zen haren lanaren ardatza. Urte horretan, Picassok bere koadroak erosi eta saltzen zituzten hiru arte-merkatariak erretratatu zituen: [Wilhem Uhde](#), [Ambroise Vollard](#) eta [Daniel-Henri Kahnweiler](#). Erretratatuok erraz identifikatzen ditugu, nahiz eta angelu eta ertz ugari pertsonen irudia desintegratzen duten.

Cadaques

1910eko uda Cadaquesen eman zuen Pablo Picassok. Bertan pintatu zuen, besteak beste, *Gitarra-jotzaile* izeneko koadroa. Lan hori kubismoaren barruan kokatzen dute adituek, baina abstrakziotik hurbilen daudenetako bat da. Garai horretan, George Braquek Estaque herrian margotu zituen paisaiak eta natura hilak abstrakziora jotzen hasi ziren, Picassoren irudien moduan.

Erakusketak

1910eko maiatzean, Wilhem Uhde arte-merkatariak Picassoren lanak erakutsi zituen bere aretoan.

Urte horretako irailean, Khanweiler arte-merkatariak Braqueren eta Picassoren lanak erakutsi zituen Municheko Thanhauser aretoan.

1911n, Pablo Picassok Vollarden aretoan eskegi zituen bere lanak. Urte horretan, Independenteen Aretoak zenbait pintore kubistaren lanak erakutsi zituen. Picassok eta Braquek ez zuten erakusketa horretan parte hartu nahi izan. 1911ko maiatzean, ordea, pintore biek hartu zuten parte Berlingo XXII. Sezesio Erakusketan.

Ceret

1911ko uztailean, Picasso Pirinioetako Ceret herrira joan zen lan egitera, Manolo Huga eskultorearen etxera; abuztuaren erdialdera, George Braque batu zitzaion. Uda hartan, artista biek antzeko motiboak margotu zituzten antzeko tratamenduekin. Jokabide horren adibide dira, esate baterako, Picassoren *Cereteko paisaia* eta George Braqueren *Teilatuak Cereten*.

Garai hartan, Picassoren eta Braqueren koadroak oso antzekoak ziren: batetik, elkarren arteko harremanak estuak zirelako; bestetik, biek beren burua artearen langile gisa ikusten zutelako. Inpertsonaltasuna bilatzen zuten nonbait, musek inspiratutako artista sortzailearen mitoa alde batera utzi nahi zuten-eta.

Altzairuzko orrazia

1911n, Picassok eta Braquek egindako lanek zenbait berrikuntza ekarri zuten: aurreko lanetan baino kolore-aukera zabalagoa erabili zuten, pintzelarekin letrak eta hitzak idatzi zituzten, eta formatu obalera jo izan zuten sarri.

1912an, George Braquek beste pausu bat eman zuen: *Omenaldia J.S.Bach-i* eta *Bibolina eta klarinetea* izeneko lanetan, altzairuzko orrazia erabili zuen egurraren hariak simulatzeko. Teknika hori pintore dekoratzaileek erabiltzen zuten. Braquek ezagutzen zituen pintore dekoratzaileen hainbat teknika, lanbide horretan ibilia zelako aitarekin eta aitonarekin. Pablo Picassok *Havreko oroitzapena* izeneko lanean baliatu zuen lehen aldiz altzairuzko orrazia.

Kautxua eta soka

1912ko maiatzean, Pablo Picassok [Natura hila saredun aulkiarekin](#) izeneko lana sortu zuen. Lan horretan, Picassok arte-errealitatetik kanpoko material hauek txertatu zituen lehen aldiz koadro batean: soka eta kautxua.

Papier collé (itsatsitako papera)

1912ko udan, Picasso eta Braque Avignoneko Sorgues auzoan batu ziren, elkarrekin lan egiteko. Picassok zenbait egun eman zituen Parisen, eta, egun horietan, Braquek egurraren hariak simulatzen zituen paper pintatuzko zenbait bilkari erosi zituen. Paper horrekin bukatu zituen Braquek hasita zeuzkan zenbait ikatz-marrazki, eta kubismoaren lehenengo *papier collé*ak sortu zituen: *Fruta-ontzia eta edalontzia* eta *Gizonezko burua* izeneko lanak.

Irailaren erdialdera, Picassok gustura hartu zituen Braqueren esperimenteren emaitzak, Paristik itzuli zenean.

1912tik 1914ra bitartean, Georges Braquek 50 *papier collé* inguru egin zituen; horretarako, material mota bat baino gehiago erabili zuen.

Picassok ere esperimentatu zuen *papier collé*ren teknikarekin, gero eta material ugariagoa baliatuta: era askotako paper pintatuak, musika-partiturak, egunkari-orriak, oihal eta tapiz zatiak, pospolo-kaxak eta bestelako hondakinak.

*Papier collé*ren teknikarekin, Braquek eta Picassok objektuen forma sinplifikatuak moztu, eta horiekin koadroaren zati handiak betetzen zituzten.

Picassok 1913an sortutako [Gitarra](#) da lan mota horien adibide.

1912-1914 urte bitartean, Picassok eta Braquek olio-pintatutako lanek *papier collé*ren teknikarekin sortutakoen antz handia dute. Horren emaitza hau da: Pablo Picassoren [Botila, gitarra eta pipa](#) (1912) izeneko olio-pintura.

Teknika-esperimentazioan murgilduta ibili ziren garai horretan: artista biek kolore biziagoak erabili zituzten kubismoaren aurreko lanetan baino.

Harea

1912-1913 urte bitarteko neguan, Picassok *Emakumezko biluzia: "J'aime Eva"* izeneko lana margotu zuen. Koadro horretan, artistak olio-pintura harearekin nahastu zuen, ehundura berria lortzeko.

Pablo Picassok maite zuen Eva hura artistaren neskalagun berria zen: Eva Gouel. Picassok eta Evak 1911ko udazkenean ezagutu zuten elkar. 1912an, pintorea eta Fernande Olivier banatu egin ziren. Banaketa horren ondoren, Eva eta pintorea elkarrekin bizitzen hasi ziren.

Picassok Evari hainbat koadro egin zizkion; batzuetan, ezkutuko izena erabilia: *Ma jolie*. Horren adibide da 1914an artistak margotutako "*Ma Jolie*": *gitarra, pipa, edalontzia, karta eta dadoa* izeneko lana.

Kartoizko gitarrak eta egurrezko mandolinak

1912an, Pablo Picassok kartoizko gitarrak egiten hasi zen: mihisez eta listariz osatu zituen, eta arkatzez eta olioaz apaindu. Erraz ikusten dugu gitarrak direla, nahiz eta oso forma estilizatuak izan.

Picassok era horretako arte-objektu bitxiak sortzeko, hainbat material erabili zituen: egur-zatiak, burdin-xaflak, etab. 1914ko *Mandolina eta klarinetea* izenekoa, esate baterako, egur-zatiz egin zuen.

Gaur egun, lan mota horiek *assemblage* (mihizatutakoa) izenarekin ezagutzen ditugu. *Assemblagea* arte era berria izan zen: Picassok sortu eta geroko hainbat artistak erabilitakoa.

Pintorea eta haren modeloa

Lehen Mundu Gerra hasi zenean, George Braquek eta Picassoren beste lagun askok soldadu joan behar izan zuten. Malagako pintoreak, Frantzia atzerritarra izanda, lanean jarraitzeko aukera izan zuen.

1914an, Picassok koadro kubistez gain, klasizismo-estiloko zenbait lan ere egin zituen. *Pintorea eta haren modeloa* dugu horietako bat. Itxuraz amaitu gabe dagoen mihise horrek Ingresen klasizismoa ekartzen digu gogora.

Kubismoa eta klasizismoa

Lehen Mundu Gerratik aurrera, ezinezkoa da Pablo Picassoren lana estilo jakin bati lotzea. Batetik, artearen historialariek 1916-1924 urte bitarteko aldiari Picassoren Klasizismo Aldia esaten zaio. Bestetik, urte horietan artistak lan kubista garrantzitsuak ere egin zituen: [Arlekin](#) (1915), [Hiru musikari](#) lanaren [bi aldaerak](#) (1921), *Natura hila gitarrarekin* (1922) eta *Mandolina eta gitarra* (1924), besteak beste.

Parade

1915eko abenduan, Eva Gouel hil egin zen, biriketako gaixotasun batek jota. 1916an, Picasso Erromara joan zen, Jean Cocteau idazleak gonbidatuta. Cocteau, Erik Satie musikagilea eta Sergei Diaghileven Ballet Errusiarrak (Les Ballets Russes) *Parade* izeneko dantza-ikuskizuna prestatzen aritu ziren. Picassori eszenografia eta jantziak diseinatzeko eskatu zioten. *Parade* da lehenengo dantza-ikuskizun modernoa. Lan horren ondoren, Picasso beste hainbat dantza-ikuskizunetako eszenografiaz arduratu zen.

Olga Kokhlova

1916an, Pablo Picassok Diaghileven konpainiako Olga Kokhlova dantzaria ezagutu zuen.

Pintoreak Diaghileven konpainiari hiru urtez jarraitu zion Europan egin zituen biretan, Olgarekin maiteminduta zegoen-eta. 1916-1919 urte bitartean, Pablo Picassok Erroma, Napoli, Ponpeia eta Londres bisitatu zituen. Toki horietan, antzinate klasikoko lan garrantzitsuak ezagutu zituen: Ponpeiako fresko-pinturak eta Atenaseko Partenoiko erliebeak, besteak beste.

1918ko udan, Olga eta Pablo ezkondu egin ziren. 1921ean, Pablo jaio zen, pintorearen seme nagusia.

Picassoren klasizismoa

1916-1924 urte bitartean, Pablo Picassok klasizismo-estiloko hainbat lan margotu zituen; artistak alde batera utzi zituen natura hilak, eta giza irudia izan zen koadroetako protagonista. Aldi horretan, amak beren umeekin, bainulariak eta hurbileko pertsonen erretratuak margotu zituen Picassok.

Klasizismo Aldiko lanen artean, hauek dira aipatu beharrekoak: [Olgaren erretratu besaulkian](#) (1917), *Olga Kokhlova* (1917), *Bainulariak* (1918), [Emakumea eta bere semea itsasbazerrean](#) (1921), [Emakumeak hondartzan korrika](#) (1922), [Pan txirula](#) (1923) eta [Pablo arlekin jantzita](#) (1921).

Irudi horietan guztietan, bizipoza irudikatu zuen Picassok: amak eta semeak elkarrekin jolasean pintatu zituen; emakumezkoak, naturaz gozaten; eta familiakoak, une lasaietan. Aipatutako koadroetan, klasizismo mota baten baino gehiagoren eragina suma daiteke estiloaren aldetik: Ingresen klasizismoa, Pompeiako fresko-pinturetakoa edota Italiako zenbait pintore garaikideren klasizismo berria.

Klasizismo Aldiko erretratuetan, pinturak ez ezik, argazkigintzak ere izan zuen eragina. Izan ere, erretratu horietako askok argazkiak dituzte abiapuntu.

Surrealismoa

1925eko martxoan, Picasso Olgarekin eta Pablarekin joan zen Monte-Carloko Ballet Errusiarak ikustera. Hiri horretan, artistak [Dantza](#) (1925) izeneko lana margotu zuen. Uztailean, *La Révolution Surréaliste (Iraultza surrealista)* aldizkariak Picassoren *Dantza* erreproduzitu zuen.

Hogeiko hamarkadaren amaieran eta hogeita hamarreko hamarkadan, Pablo Picassok zenbait lan surrealista margotu zituen: *Musua* (1925) eta [Irukiak itsasbazerrean](#) (1931), besteak beste. Bi lan horietan, Klasizismo Aldiko lasaitasuna desagertu, eta, haren ordez, oldarkortasuna eta ankerkeria azaltzen dira.

Marie-Therese Walter

1927-1928 urte bitarteko neguan, Pablo Picassok hamazazpi urteko Marie-Therese Walter ezagutu zuen. Marie-Therese pintorearen modeloa eta maitalea izan zen zortzi urtez. 1935ean, Marie-Therese eta Pablok alaba bat izan zuten: Maya.

Marie-Therese haurdun zegoela jakinda, Olga Kokhlovak Picasso utzi, eta Frantziako hegoaldera joan zen bere seme Pablarekin.

1928-1936 urte bitarteko lanetan, Picassok hainbat aldiz irudikatu zuen Marie Therese eskultura, grabatu zein pinturetan. Olio-pinturen artean, aipagarriak dira 1932an margotutako bi mihise hauek: [Irakurketa](#) eta [Neska gaztea ispiluaren aurrean](#).

Suite Vollard

1930eko hamarkadan, Pablo Picassok zenbait pintura eman zizkion Ambroise Vollard arte-merkatariari. Lan horien truke, 1937an, Vollardek artistaren ehun grabatuk osatutako seriea jaso zuen. Gaur egun, serie hori ezagutzen dugu *Suite Vollard* izenarekin.

Grabatu horietan, Picassok hainbat gai jorratu zituen, teknika grafiko ugari baliatuta: eskultorearen tailerra (46 xaflatan), Minotauro itsua (15 xaflatan), bortxaketa (4 xaflatan), Rembrandt (4 xaflatan) eta Ambroise Vollarden erretratuak (3 xaflatan); aurrekoez gain, gai libreko beste 27 lan ere badaude.

Dora Maar eta Gernika

Paul Eluard poeta surrealista Dora Maar argazkilaria aurkeztu zion Picassori. Dora Maarren eta Pablo Picassoren arteko harremanak 1936an hasi, eta 1943 arte iraun zuen.

1936ko uztailean, Espainiako Gerra Zibila hasi zen. 1937ko urtarrilean, Jose Lluís Sert arkitektoak eta Max Aub eta Jose Bergamin idazleek Picasso bisitatu zuten Parisen. Espainiako Errepublikako gobernuaren izenean, 37 metro karratuko horma-irudi bat egiteko eskatu zioten, Espainiako Errepublikak

Parisko Nazioarteko Erakusketan jarriko zuen pabiloia apaintzeko. Picassok enkargu hori onartu egin zuen.

1937ko apirilaren 27an, Alemaniako hegazkinek Gernika hiria suntsitu egin zuten. Urte horretako maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picassok [Gernika](#) lana margotu zuen. Artistak mihise erraldoia pintatu ahala, Dora Maarrek lanaren argazkiak atera zituen. Argazki horiei esker ezagun izan dugu Gernikaren sortze-prozesua.

Royan

Bigarren Mundu Gerrako urteetan, Pablo Picassok hainbat egonaldi egin zituen Royan herrian. Royan Frantziako Atlantikoko kostaldean dago, Bordeletik gertu. Urte horietan, pintoreak hainbat koadrotan gai hau jorratu zuen: jezarritako emakumea. Irudikatutako emakumea zenbaitetan Dora Maar zen; beste zenbaitetan, berriz, Marie-Therese Walter. Irudi horiekin finkatu zuen artistak bere arte-hizkuntza.

1939-1943 urte bitartean, jezarritako emakumeei buruzko serie horrez gain, Picassok koadro ospetsu hauek ere margotu zituen: *Emakumea bere burua orrazten* (1940), *Umea langosta eskuan* (1941) eta *Alborada* (1942).

Françoise Gillot

1943an, Pablo Picassok Françoise Gillot pintore gaztea ezagutu zuen. 1946an, elkarrekin bizitzen hasi ziren. Picassok eta Françoisek bi seme-alaba izan zituzten: Claude eta Paloma.

Artistak Françoiseren eta seme-alaben hainbat erretratu margotu zituen: *Claude amaren besoetan* (1948), *Claude eta Paloma marrazten* (1954) eta [Claude marrazten, Françoise eta Paloma](#) (1954), besteak beste. Azken bi koadroak Picasso eta Françoise banatu ostekoak dira. Lanok, erretratuak baino gehiago, pinturari buruzko hausnarketak dira; koadro bietako motibo nagusia hau da: Claudek margotu behar duen paper zuria.

1953ko azaroan, Françoise Gillotek Picasso utzi egin zuen. 1953ko azaroaren 18tik 1954ko otsailaren 3ra bitartean, artistak *Pintorea eta Modeloa* izeneko

marrazki seriea egin zuen: 180 marrazkik osatzen dute serie hori. 1953ko abenduaren 29an, Picassok *Itzala* izeneko koadroa margotu zuen.

Pintura eta politika

Bigarren Mundu Gerraren ostean, Pablo Picassok Frantziako Alderdi Komunistaren kide izan zen, bakearen aldeko zenbait kongresutan hartu zuen parte, eta hainbat adierazpen politiko egin zituen. Pinturan ere, gai politikoak jorratu zituen: [Hezurtegia](#) (1945) eta *Sarraskia Korean* (1951) izeneko lanak, esate baterako, pintorearen jarrera politikoen lekuko dira.

Jacqueline

Jacqueline Rocqueren eta Picassoren arteko harremanak 1953an hasi ziren. 1954an, pintoreak Jacquelinaren erretratu hauek egin zituen: [Jacqueline loreekin](#) eta [Jacqueline xal beltzarekin](#). 1955ean, Olga Kokhlova, Picassoren emaztea, hil egin zen, Cannesen. 1961ean, Jacqueline Rocque eta Pablo Picasso ezkondu egin ziren.

La Californie

1955ean, Olga hil zen urtean, Picasso eta Jacqueline Canneseke La Californie izeneko landetxera joan ziren bizitzera. Etxe horretan pintatu zituen Picassok koadro bi hauek: *Canneseke La Californie estudioa* (1956) eta *Jacqueline estudioan* (1956). Lehenengo koadroan, estudioaren erdian dagoen mihise zuria da protagonista nagusia.

Sexualitatea, pintura eta zahartasuna

Picasso bizi zela, arte-kritikari garaikideek ez zituzten gehiegi estimatzen artistak 1951tik aurrera egindako lanak. Gaur egun, ordea, artearen

historialariak artistak aldi horretan sortutako lan mota guztiak balioesten hasi dira : koadro, grabatu, marrazki zein eskulturak.

Bere bizitzako azken hogeitun urteetan, Pablo Picassok bi gai nagusi jorratu zituen: sexualitatea eta pintura.

Sexualitatea

Sexualitatea ez da gai berria Picassoren lanetan. Alabaina, zahartzaroko koadroetan lizunkeria nabarmenagoa da: emakumezko biluziez gain, sexu-jarduna eta irudi eskatologikoak ere ageri dira artistaren hainbat lanetan. Sexuari lotutako gai horiek askotan errepikatzen direnez, ezinbestekoa da artistak zein egunetan pintatu zituen aipatzea, koadroak identifikatzeko. Picassok berak lagundu zigun zeregin horretan, eta data jarri zien zahartzaroan pintatu zituen koadro guztiei. Izan ere, garai horretan, artistak egunean koadro bat edo bat baino gehiago margotu ohi zituen.

Sexualitatea edo gizonak eta emakumeak gai duten koadroen ereduak hauek izan daitezke: *Gizona eta emakumea biluzik* (1965eko urriak 25) eta *Alborada* (1967ko ekainak 18).

Pintura

1955ean, Picassok Delacroixen *Aljerreko emakumeak* lanari buruzko koadro-serie bat pintatu zuen. Horren ostean, honako serie hauek ere aztertu zituen: Velazquezen [Meninak](#), Maneten [Bazkaria belazean](#), Daviden [Sabinarren bahiketa](#), eta beste zenbait.

Koadro-serie horietan guztietan, Picassok bere buruaz hausnartzen du, baita artearen historiaz eta modernitatearen historiaz ere.

Sexualitatea eta pintura uztartzeko, artistak [pintorearen eta modeloaren motiboa](#) landu zuen hainbat aldiz. Gai horri buruzko koadro-serieetan, eszena bera errepikatzen da beti: pintorea agertzen zaigu pintzela eskuan, modeloari begira; eta modeloak sexua erakusten die pintoreari zein ikusleari.

Zahartasuna

Picassok, zahartu zenean, bere burua ageri zuen koadroetan hainbat aldiz: batzuetan, zuzenean; beste batzuetan, zenbait pertsonaia metaforikoren bitartez. Pertsonaia horien artean, Picassok lan gehienetan agertu zituenak mosketeroa eta erretzailea izan ziren; Rembrandt pintorea ere irudikatu zuen zenbait lanetan. Pertsonaia horiek guztiak artistaren zahartasunaren alegoria izan ziren.

Zahartasuna da koadro hauetako gaia: [Gizon zaharra jezarrita](#) (1970-1971); *Rembrandten eta Cupidoren irudiak* (1969); eta *Mosketeroa (Domenico Theotocopulos van Riyn da Silva)*, 1967ko martxoaren 28an margotua.

Azken urteetako autoerretratuetan ere, Picassok bere gainbehera fisikoa islatu zuen. Jokaera hori erakusten du 1972ko ekainaren 30ean egindako [Autoerretratu](#). Erretratu hori margotu eta zenbait hilabete geroago, 1973ko apirilaren 8an, Pablo Picasso hil egin zen.

Pablo Picassoren zenbait lanen iruzkinak

[Lehen Jaunartzea \(1895-1896\)](#)

Pablo Picassok hamabost urte zituela amaitu zuen *Lehen Jaunartzea* koadroa. Artista gazteak familiako gertakizun pribatua irudikatu zuen mihise horretan: bere arreba Lolaren Lehen Jaunartzea.

Irudiaren konposizioa sinplea da. Familiakoak albotik erretratatuta daude bata bestearen atzean; meza-laguntzailea, berriz, aurrez aurre pintatuta dago. Espazioaren sakontasuna irudikatzeko, artistak eskailera eta aldarea diagonalean kokatu ditu.

Eszenako pertsonaia guztiak geldi-geldi daude, eta atzealde ilunak kolore-contraste bizia eragiten du Lolaren jantzi zuriarekin. Prozedura sinple bi horiekin sortu ditu artistak eliza-barnealdeko giro isil eta geldoa.

[Emakume eskale uzkurtua, 1902](#)

1902an, Picassok *Emakume eskale uzkurtua* margotu zuen Bartzelonan. Aldi Urdineko lana da: emakumearen mantua laranja-kolorekoa izan arren, urdina da koadroaren kolore nagusia.

Picassoren lan honetan, Isidro Nonellen eragina nabaria da. Nonellek irudi trinkoak eta ia monokromoak margotu ohi zituen. Horrelakoa da Picassoren *Emakume eskale uzkurtua*, baina Isidro Nonellen irudiak baino sentimentalagoa: erlijio-pinturako emakume santu horietako bat dakarkigu gogora.

[Bi ahizpak, 1902](#)

1902an, Pablo Picassok *Bi ahizpak* koadroa pintatu zuen Bartzelonan. Koadroaren hondoa eta irudi ia osoak urdinak dira. Pertsonaiak marjinatuak dira: St. Lazare presondegiko bi prostituta. Kartzela horretan, gaixotasun benereok zituzten emakumeak egoten ziren preso. Picassok prostituten arteko eszena hori irudikatu zuen Ebanjelioko ikustaldia izeneko eszenaren antzera.

Eskuineko emakumeak almendra-itxurako begi handiegia du: Picassok hurrengo urteetan pintatuko zituen moduko begi estereotipatuak.

Harena (1906)

1906ko udan, Pablo Picasso Gósolen izan zen Fernande Olivier neskalagunarekin. Gósol Kataluniako Pirinioetako herri txiki bat da; bertan sortutako lanetan, Picassok, herriko zenbait biztanle erretratatzeari gain, Fernanderen aurpegiera eta gorputza irudikatu zituen hainbat aldiz.

Harena koadroa pintatzeko, Pablo Picassok Fernanderen irudi horiek baliatu zituen, batetik, eta Ingresen [Bainu turkiarraren](#) odaliskak, bestetik.

Izan ere, Picassoren *Haren*eko zenbait irudik Ingresen koadro horretako odaliskak kokapenak eta jarrerak errepikatzen dituzte.

Picassok *Haren*ean sei irudi pintatu zituen: atso zaharra, jantzita; gainerako guztiak, hau da, gizon gihartsua eta lau emakume gazteak, biluzik.

Lau emakume horien irudietan, Picassok hainbat jarreratan irudikatu zuen Fernande Olivier: ezkerrean, artistaren neskalaguna bere burua orrazten agertzen zaigu; eskuinaldean, ezpainak margotzen; erdialdean, bi Fernande ditugu: bata hankak garbitzen eta bestea nagiak ateratzen.

Lau neskei begira dagoen gizonak askaria dauka ondoan: ogia, tomatea eta hestebetea. Jaki horiek Katalunian herri-herrikoak dira.

Oro har, *Haren* izena gorabehera, koadroan ikusten den eszenan ez dago inolako exotismorik.

Koadroaren pertsonaiek ez dute harremanik elkarren artean. Forma sinpleak dituzte, aurpegi estereotipatuak, eta haietako batzuk amaitu gabe daudela dirudi.

1907an, Pablo Picassok *Avignongo andereñoak* lana margotu zuen. Koadro horretan, *Harena* koadroaren bost irudi nagusien kokapena errepikatu zuen.

Gertrude Steinen erretratua

1906an, Gertrude Stein nobelagile eta arte-bildumagile estatubatuarrek bere erretratua pintatzeko eskatu zion Picassori.

Nobelagileak 32 urte zeuzkan. Emakume gaztea zen, sortzailea, ekonomikoki independentea, lesbiana eta arte garaikidearen bilduma garrantzitsu baten jabea.

Picassok erretratu horrekin erronka bikoitzari egin behar izan zion aurre: batetik, Steinen nortasun konplexua islatu behar izan zuen; bestetik, pintoreak bere lana parekatu behar izan zuen Steinen bildumako beste erretratu bikain guztiekin. Matisseren *Kapeladun emakumea*, esate baterako, Gertrude Steinen bilduman zegoen.

Picassok hiru hilabetez landu zuen erretratua Gertruderekin, estudioan. Idazlearen gorputza pintatzeko, artistak Ingres klasizismoko pintorearen lan bat hartu zuen eredutzat, Louvreko Louis François Bertin kazetariaren erretratua.

Koadro horretan, Ingresek Bertinen irmotasuna haren masa fisikoaren bitartez adierazi zuen. Picassok Bertinen jarrera kopiaitu, eta beste horrenbeste egin zuen Gertrude Steinen gorputzarekin.

Bildumagilearen aurpegia margotu behar izan zuenean, ordea, artista nora-ezean ibili zen. Azkenean, erretratua bertan behera utzita, Paristik alde egin zuen.

Pablo Picassok eta Fernandek hainbat hilabete egin zuten Katalunian: Bartzelonan eta Gósol herrian. Gósolen, Picasso bere modeloen aurpegiak eta gorputzak estereotipatzen hasi zen.

Parisera itzuli zenean, pintoreak Steinen erretratua buruz amaitu zuen, estatubatuarra Italiatik Parisera itzuli baino lehen.

Bildumagilearen aurpegieraren orde, Picassok maskara baten moduko aurpegi estereotipatua txertatu zion aurrez pintatutako gorputzari.

Gertrude Steinek bere erretratua Matisseren *Kapeladun emakumea* lanaren gainean jarri zuen, Parisko etxeko aretoan.

[Daniel Henri Kahnweilerren erretratua \(1910\)](#)

Daniel Henri Kahnweilerren erretratua egiteko, Picassok motiboa planoetan banatu, eta plano horiek koadroan hedatu zituen. Prozedura horrek dezente zailtzen du erretratua nor den ezagutzea.

Alabaina, koadroaren ikusleok Kahnweiler identifikatzeko, Picassok zenbait argibide eskaintzen dizkigu: arte-merkatariaren ilea eta elkarrekin gurutzatutako eskuak, esate baterako.

Natura hila saredun aulkiarekin (1912)

1912ko maiatzean, Pablo Picassok *Natura hila saredun aulkiarekin* izeneko lana sortu zuen. Benetako soka batek inguratzen du koadroaren formatu obala. Irudiaren zenbait osagai margotuta daude, eta beste zenbait, itsatsita: behealdean, saredun aulkia simulatzen duen kautxuzko mahai-zapi baten zatia dago itsatsita; goiko aldean, estilo kubistan pintatutako zenbait objektu daude; ezkerrean, JOU irakur daiteke, *journal* (egunkaria) hitzaren lehen letrak. Lan horretan, Picassok artean ordura arte erabili ez ziren material hauek txertatu zituen lehen aldiz koadro batean: soka eta kautxua.

Ma Jolie (1914)

1914an, Picassok "*Ma Jolie*": *gitarra, pipa, edalontzia, karta eta dadoa* izeneko lana margotu zuen. Koadroaren izenean aipatzen diren objektuekin Picassok taberna bateko barnealdea iradokitzen du. Gitarraren gainean margotutako Bass hitza likore baten izena da. Gitarraren atzeko pentagraman, *Ma jolie* hitzak ageri dira. 1914an, Ma jolie edozein tabernatan entzun zitekeen herrikanta bat zen. Alabaina, Picassorentzat hitz horiek esanahi pribatua zuten, artistak Evari horrela esaten zion-eta.

Olga Kokhlova (1917)

1917an, Pablo Picassok Diaghileven konpainiako Olga Kokhlova dantzaria ezagutu zuen. 1918an, Picasso eta Olga ezkondu egin ziren. Picassok Olgaren erretratu asko margotu zituen klasizismo-estiloan.

1917ko udan pintatutako koadro honetan, Olga Kokhlovaren jarrera pentsakorrak Ingresen Haussonvilleko kondesaren erretratua ekartzen digu gogora.

Alabaina, Kokhlovaren erretratuan kubismoaren eta primitibismoaren eragina ere sumatzen da. Batetik, dantzariaren irudi lauak koadro kubistak gogorarazten dizkigu. Bestetik, Olgaren aurpegiera sinplifikatuan primitibismoaren eragina antzematen dugu.

Neska gaztea ispiluaren aurrean (1932)

1932an, Pablo Picassok Marie Thérèse Walterren erretratu bikoitza margotu zuen: *Neska gaztea ispiluaren aurrean*.

Walter artistaren maitalea izan zen zortzi urtez. 1935ean, alaba bat izan zuten: Maya.

Marie Thérèseri egindako erretratuen artean, Pablo Picassok hau omen zuen gustukoena.

Neska gaztea ispiluaren aurrean koadroan, neska gaztea eta haren ispiluko irudia ageri dira. Benetako emakumea zein ispiluko irudia profilez eta aurrez ikusten ditugu aldi berean. Biak, biluzik eta jantzita. Biak, guri eta elkarri begira.

Emakume-bustoa kapelarekin (Dora), 1939

Dora Maar argazkilariaren eta Pablo Picassoren arteko harremanak 1936an hasi, eta 1943an amaitu ziren. Zazpi urte horietan, artistak hainbat aldiz margotu zuen Dora. Erretratu horietako gehienetan, argazkilariaren aurpegia itxuraldatuta ageri da, batez ere Bigarren Mundu Gerraren garaian Royan-en (Bordeletik gertu) pintatutako koadroetan.

Kolore bizi-bizietako erretratu honetan, Doraren aurpegia bi ikuspuntutatik dago ikusita. Haren begiek aurrera eta, aldi berean, koadroaren alde banatara begiratzen dute.

Claude marrazten, Françoise eta Paloma (1954)

1950eko hamarkadatik aurrera, Picassoren gai kuttunenak pinturari buruzko hausnarketak eta arlo pribatuko gaiak izan ziren.

Aldi horretan, artistak beste zenbait pintoreren lanak aztertzeaz gain, bereak ere berrikusi izan zituen.

[Claude marrazten, Françoise eta Paloma](#) koadroak gogorarazten du Picassok 1923an pintatutako [Paul marrazten](#) izenekoak. Azken koadro horretan, Paul ari da buru-belarri lanean, paper zuri-zuri bat bete gurean. Lehenengoan, ordea, Claude da marrazkilaria.

1956ko koadroan, Claude ez dago bakarrik: ama eta arreba ere harekin daude marrazkiari begira. Françoise Gillot, umeen ama, itzal babesle baten modura ageri da koadroan. Itzal horren jarrerak Picassok 1937an margotutako [Bainulari handia](#)rena ekartzen du gogora

Jacqueline (1957)

Picassoren eta Jacqueline Rocqueren arteko harremanak 1953an hasi ziren. 1961ean, ezkondu egin ziren. Jacqueline Picassoren ondoan egon zen artista hil zen arte.

Picassok Jacquelinaren hainbat erretratu margotu zituen; horietako bat *Meninak* seriean sartu zuen.

Koadro-serie horretan Picassok Velazquezen laneko pertsonaia guztien aldaerak pintatu zituen, errege-erreginenak izan ezik.

Meninak serieko [Jacqueline](#) ageri da pintatutako marko edo ispilu batean, Velazquezen koadroko errege-erreginen antzera.

Autoerretratu (1972)

Picassok koloretako arkatzez egindako marrazki honetan, artistaren begiek betetzen dute toki handiena aurpegian. Sorbalda meharrek pintorearen gainbehera fisikoa erakusten dute. Buruak buru-hezur baten itxura du: beharbada, artistak heriotza gertu sumatzen duela adierazteko.

Bibliografía:

CARSTEN PETER, Warncke: *Picasso*, Taschen, 2007.

ESSERS, Volkmar: *Henri Matisse*, Taschen, 2002

F. WALTHER, Ingo: *Pablo Picasso*, Taschen, 1988.

JAQUES PI, Jèssica: *Picasso en Gósol, 1906: un verano para la modernidad*, La balsa de la Medusa, 161, A. Machado libros S.A., 2007.

MARCHAN FIZ, Simón: *Fin de Siglo y los primeros "ismos" del XX (1890-1917)* Summa Artis. Historia General del Arte, XXXVII, Espasa Calpe, 1994.

NERET, Gillet : *Matisse*, Taschen, 2006

VOZAL, Valeriano: *Arte del siglo XX en España I. Pintura y escultura 1900-1939* Summa Artis, Historia General del Arte, XXIII, Espasa Calpe, S.A., 1901,1905.

ZENBAITEN ARTEAN: *El espejo y la máscara. El retrato en el siglo de Picasso*, Ediciones el Viso, 2007.

LLORENS, Tomás: *Matisse 1917-1921*, Museo Thiesen-Bornemiza, Madril, 2009.